

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

OSALAN

1. Lan-arriskuen prebentzio-arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntza 2016-2017..... 2
2. Prebentzio ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2016erako deialdia 3



1.- Izenburua

Lan-arriskuen prebentzio-arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntza 2016-2017

2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko abuztuaren 31koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena. 2016-2017.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lan-arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-programak prestatzea, sustatzea eta garatzea.

Nori zuzendua: EAEn erroldatutako pertsona fisikoak eta EAEn kokatutako pertsona juridikoak (publikoak zein pribatuak).

Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa: Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100eraino.

Gauzatzeko aldia eta epea: Diru-laguntzaren xede diren jarduketak urtebeteko epean egin beharko dira, emakidaren jakinarazpen ofiziala jaso eta ondorengo egunetik hasita.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontua: 500.000 €

22 eskabide aurkeztu ziren, eta 6 proiekturi eman zitzaion laguntza.



1.- Izenburua

Prebentzio ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2016erako deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 16koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2016eko ekitaldian prebentzio-ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematea nahi duten erakunde publiko zein pribatuei dei egitea.

Erakundeen baldintzak: Hezkuntza Sistemak aitortutako eta homologatutako ikastetxeak, edo Gizarte Segurantzako Lan Istripuen eta Lanbide Gaixotasunen Mutualitateak edo egiaztatutako Prebentzio Zerbitzuak izatea.

Prestakuntza-ekintzak oinarrizkoak izango dira, Lan Arriskuen Prebentzioari eta Osasunari lotutako Lanbide arteko Akordioan ezarri bezala, eta bi zati izango dituzte: bata 16 ordukoa, araudi-arloko prestakuntza, eta bestea 32 ordukoa, prestakuntza teknikoa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016eko deialdiaren bitartez, 300.000 euroko aurrekontuarekin, 67 prestakuntza-erakunde baimendu ziren, 29 Bizkaian, 15 Araban eta 23 Gipuzkoan.

Guztira, araudi-arloko 52 ikastaro (7 Araban, 27 Bizkaian eta 18 Gipuzkoan) eta arlo teknikoko 52 ikastaro (11 Araban, 19 Bizkaian eta 22 Gipuzkoan) egin dira.